

V - BESTELAKOAK

ARAMAIOKO ARGINDAR BANATZAILEA, SA

2021 urteko Lan Eskaintza Publikoa

Aramaioko Argindar Banatzailea S. A.ko administrazio kontseiluak adostu zuen, 2021eko uztailaren 1ean egindako bilkuran, dagokion quorumarekin:

Lehena. Onartzea, 2021 urteko Lan Eskaintza Publikoa, jarraian adierazten diren ezaugarriekin:

LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK:

Lanpostua: Teknikari kudeatzailea.

Kopurua: 1.

Taldea: A2.

Betetzeko modua: Barne promozioa.

Bigarrena. Negoziazio Mahaiaren deialdia egitea, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duenak, 36 eta 37.1 artikuluetan agindutakoa betetzeko.

Hirugarrena. Publikatzea 2021 urteko Lan Eskaintza Publikoa, Aramaioko Udalaren egoitza elektronikoan, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, interesdunek egoki ikusten duten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Aramaion, 2021eko uztailaren 1ean

Administrazio Kontseiluko lehendakaria
LIERNI ALTUNA UGARTE